



Zurriolako Ataria

47. alea

2019-01-25

Kaldereroak

Datorren ostiralean, otsailak 1, Kaldereroen konpartsa kaleratuko du ikastolak. [Ohar](#) honetan informazioa irakur dezakezue. Horretaz gain gogoratu, alde batetik, gurasoen laguntza oso estimagarria dela HH eta LHko ikasleak ikastolan bertan jantzi ahal izateko eta, bestaldetik, eguraldiaren iragarpena dela eta oharrean adierazitako egitaraua aldatu beharko bagenu, datorren asteazkenean jakinaraziko zaizuela webgunearen bitartez.



Inauterietako jantziak

Aurreko *Atarian* LH4 eta LH6ko inauteri jantzietan egindako proposamen berriak argitaratu genituen. Ondorioz, hauxe duzue HH-LHrako Inauterietako jantzien [kosten](#) osoa.



LH2koak Miramonen

Unibertsioan zehar bidaiatzen dabilta 2. mailakoak eta asteartean Kutxa Espaziora irteera egin zuten EGUZKI SISTEMARI buruz gehiago ikasteko asmoz. Bide batez hango tramankulu guztietan aritzeko aukera izan zuten.



EOSen kontzertuan

Aste honetan LH3 eta LH4ko ikasleak Miramonen izan dira Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertuetan. Bertan musika eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizun ederraz gozatu ahal izan dute.



Mila esker gaur arratsaldean "1968-2018 Zurriola Ikastola, Kultura eraiten" dokumentala ikustera gerturatu zareten guztioi!



Urtarrilaren 28an matrikula ofiziala egiteko epea irekiko da. Informazio gehiago [bertan](#).



DANBORRADA HURRAN. Bertan [klikatu](#) eta honez gero ahaztuta ditugun danborhotsak biziartziko dituzue.

OHARRAK / AGENDA:

- HH5: Groseko Haur-Txokoa. Tximista taldea. Goiz pasa. Urtarrilak 31.
- LH3-4: Igeriketa. Otsailaren 4tik 7ra.
- Jangela: Otsaileko [menua](#).
- Eskola Kirola: 9. jardunaldia. [A](#) eta [B](#).
- Zurrimendi: Urtarrileko [irteera](#).
- Aisialdiko jarduerak haurrentzat: [Urtarrilak 26-27](#).

ikastola
elkarrekin
hezkuntza
eraldatzen

ikastolenkartea

